BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

751

EBAZPENA, 2008ko apirilaren 30ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, tratamendu fisiko-kimikoaren bidez hondakin arriskutsuak kudeatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Adunako (Gipuzkoa) udalerrian eta Ekonor SA enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 26an, Narciso Padrones Nuñez jaunak, Lizarreka SL enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, hala xedatuta baitago kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legean, Adunako (Gipuzkoa) udalerrian hondakinak kudeatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera, Adunako Udalak 2006ko ekainaren 20an eman zuen aldeko hirigintza-txostena eta honako dokumentazio tekniko hau aurkeztu zuen:

– Oinarrizko proiektua (2006ko abendua).

– Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Lizarreka SL enpresak, besteak beste, jarduerarako 2001eko azaroaren 13ko baimena zuen. Baimen hori hondakinak kudeatzeko eman zen. Halaber, enpresa sustatzaileak honako baimen hauek zituen: hondakin arriskutsuen kudeatzaileari dagokion baimena, 2002ko urtarrilaren 8koa, jabari hidrauliko publikora isurtzeko baimena, 2001eko azaroaren 20koa, hondakin arriskutsuen sortzailearena, 2006ko uztailaren 28koa eta industria-hondakin ez-arriskutsuen sortzailearena, 2005eko urtarrilaren 13koa, eta hondakinen arloan indarrean dagoen araudiak ondoren ezarritako zabaltzeak eta berrikuntzak.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkien, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Adunako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoari egin zitzaien eskaera.

2007ko martxoaren 27an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko azaroaren 7an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumeneko sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Lizarreka SL enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

2007ko abenduaren 14an, Lizarreka SL enpresak Ingurumen Organo honen aurrean, Ekonor SA enpresak (elkarte bereganatzaile gisa) Lizarreka SL enpresa (elkarte bereganatu gisa) bereganatze bidezko fusioko eskrituren kopia aurkeztu zuen.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, hainbat alegazio aurkeztu direla egiaztatu da eta euren kopia erantsi zaio agiri honi.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko martxoaren 3an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Adunako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Iparraldeko Ur Konfederazioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko apirilaren 16an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Ekonor SA enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpen-Proposamena gehituz.

2008ko apirilaren 25ean sustatzailearen idazki bat jaso zen, ingurumeneko baimen bateratuaren ebazpen-proposamenari buruz egindako hainbat gogoetarekin.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Ekonor SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuen kudeatzailearena, hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzekoa eta ibilgura isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada

ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Ekonor SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Adunako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko «Reference Document on Best Available Techniques for the Waste Treatments Industries» hondakinen kudeatzaileen BREF txostenaren edukia kontuan hartu da.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Ekonor SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapidetze honetan egindako analisiak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Honako araudi hau ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko apirilaren 16an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplika daitekeen gainerako araudia, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Iruña Okako (Araba) udalerriko Larras de San Juan, z/g, helbidean egoitza soziala duen eta IFK: A-01038074 zenbakidun Ekonor SA enpresari Adunako udalerrian hondakin arriskutsuen neutralizazio-hauspeatze-iragazpen bidezko tratamendu fisiko-kimikoko jarduerarako Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Era berean, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluaren arabera, Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzei kalterik egin gabe.

Jarduera, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 5.1 kategorian sartuta dago, «Hondakin arriskutsuak baliozkotzeko, olio erabilien kudeaketa barne, edo aipatu hondakinak zabortegiak ez diren lekuetan, eguneko 10 tona baino gehiagoko ahalmena dutenak, ezabatzeko instalazioak» izenekoan.

Hondakinen kudeaketarako Ekonor SA enpresak egiten duen tratamendu fisiko-kimikoa hondakinak neutralizatzean datza, hidroxido moduan disolbatutako katioien hauspeatzea lortu arte eta prentsa-iragazkitan filtratu ostean bereizten dira. Ondoren, hala lortutako lohiei egonkortze-solidotzeko prozesua aplikatzen zaie, zementua duen nahasketaren bidez. Instalazioaren tratamenduaren gehienezko gaitasuna 46.000t/urtekoa da.

Jarraian, aipatutako prozesu bakoitza zehazten da:

a) Neutralizazio/Hauspeatze/Iragazpena (N/P-I) (R9 kudeaketaren eragiketa-kodea).

Prozesua hondakinen azidotasun edo alkalinotasunaren neutralizazioan eta metalen hauspeatzea hidroxido forman eraldatzean datza. Hondakinak gehigarri egokiekin edo beren artean (baseak dituzten azidoak) nahastuz lortzen da pH jakin batera iritsi arte, hondakinen azidotasun edo alkalinotasuna neutralizatua geratzen baita, eta metal astun disolbatuak hauspeatu ere egiten baitira. Puntu horretara iritsi ostean, nahasketa iragazten da eta zati solido hauspeatua ondoriozko efluente urtsuarengandik banatzen da. Efluente hori industria-uren araztegira eramaten da (tratamendurako gehienezko gaitasuna 15 m^3/o da). Hondakin-uren arazte-prozesuak honako hauek dira: metal disolbatuen hauspeatzea, segurtasun-iragazte edota araztea, apar-aurkako tratamendua, amoniakoa ezabatzea eta pH-aren azken doiketa. Neutralizazio-tratamendutik sortzen den frakzio solidoari egonkortze-solidotzeko prozesua aplikatzen zaio.

Instalazioaren neutralizazio/hauspeatze/iragazpenerako gaitasuna 17.800 t/urtekoa da.

b) Hidroxido metalikoen Lohien egonkortze-solidotzea (I/E-S) (D9 kudeaketaren eragiketa-kodea).

Ekonor SA enpresan ezarritako egonkortze-solidotzea, neutralizazio-prozesuaren lehen iragazpenean sortutako lohien eta kanpo-instalazioetan jasotako hondakinen kudeaketan datza: Prozesuan aglomeratzaile bat gehitzen zaio (Portland zementua) operazio-baldintza jakin batzuetan eta horren ondorioz lortzen den azken produktua hondakin arriskutsu egonkor ez erreaktibo gisa kataloga daiteke, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Hondakina, egonkortu ostean, horretarako baimendutako zabortegian kudeatzen da.

Kanpo-instalazioetatik datozen hondakinentzat, hondakina egokitzeko etapa bat egingo da zementu eta erreaktiboak erabiliz eta ondoren, bi eguneko zahartzapen-etapa bat.

Egonkortze-solidotze tratamenduaren gaitasuna 20.000 t/urtekoa da. Kanpo-instalazioetatik datozen hondakinak onartzeko gaitasuna, urtean 20.000 t-tara iritsi artekoa izango da, Neutralizazio/Hauspeatze/Iragazpen prozesuan sortutako lohiak kudeatu ostean.

Prozesua behar den bezala gauzatzeko ondoko hondakin-andelak dituzte:

– Poliesterrezko andelak: poliester/beira-zuntzez eginiko zortzi andel berdinez osatutako multzoa, bakoitza 3 metroko diametroa eta 22,5 m^3-ko edukiera unitarioarekin.

– Hormigoizko andelak: hormigoi armatuz eraikitako bi andel berdinez osaturiko multzoa, 125 m^3-ko edukiera unitarioarekin eta barnealdea azidoaren aurkako babeslez estalia. Bi andelek tapa eta konportak dituzte ikuskapena eta mantentze-lanak egin ahal izateko.

– Hondakinak deskargatzeko eremua: eremuak bi plataforma ditu, lehena 348 m^2-ko hormigoizko plataforma da, azidoaren aurkako estaldura, areagotze periferiko eta gerta daitezkeen jarioak jasotzeko kutxetarantz doan isurialdearekin. Plataforma bi zatitan banatua dago, lehenak 287 m^2 ditu eta hondakin azido edo alkalinoen garraioa deskargatzeko erabiltzen da; entzun nahiz

ikus daitezkeen abisuak igortzen dituen biltegiratze-andel desberdinen betetze-alarma du. Bigarren zatiak, berriz, 61 m^2 ditu eta kaltzio hidroxidoa disoluzioan deskargatzeko soilik erabiltzen da. Hondakin hori, neutralizazio-nabearen barrualdean dagon konposatu horren biltegiratze-andelera deskargatzen da. Lohi hidroxido metalikoak eta produktu alkalino solidoak deskargatzeko lehen erabiltzen zen bigarren plataformak 339 m^2 ditu, hormigoizko babesa du eta alkalien disoluzio-andelen ondoan kokatzen da.

– Hautsezko hondakinen biltegiratzea (Instalazio berria): hautsezko hondakinak irits daitezkeela aurreikusiz, zulo bat instalatzea aurreikusi da.

Neutralizazio-prozesuaren xurgapen-sistemari dagokin isurtze-foku sistematikoa du, eta ekipo erredundante bera dute egoera osagarrietarako.

Ekonor SA enpresan sortutako industriako hondakin-urak aipatutako arazketa-sisteman tratatzen dira Oria ibaira isuri aurretik; potentzialki kutsaturik ez dauden euri-urak Lizarreka errekara isurtzen dira. Ur sanitarioak kolektorera isurtzen dira.

Instalazioaren urteko energia-kontsumoa 4.000 litro gasolio ingurukoa da. Gasolioa lokomozio-erregai gisa erabiltzen da Ekonor SA enpresaren instalazioek hondakinen zein prozesuko amaiera eta tarteko produktuen karga eta manipulaziorako dituzten makina astunentzat. Gainera, hilean 22.460 kwh inguruko elektrizitatea kontsumitzen da.

Ekonor SA enpresak honako prozesu hauekin lotutako hondakin arriskutsuak sortzen ditu: Zamalanak eta Biltegiratzea, Mantentze-Iragaztea, Zerbitzu Orokorrak eta Hondakinen auto-kudeaketa uren arazketaren bidez. Instalazioan sortutako hondakin ez-arriskutsuen artean, hondakin ez-organiko egonkortuak, papera eta kartoia, plastikoak, metalak eta zura daude.

Ekonor SA enpresaren jardueran, Hondakinen Kudeatzaileen Industriarako BREF agirian (Reference Document on Best Available Techniques in the Waste Treatments Industries, 2006ko abuztua) jasotako teknikarik onenen erabilera aplikatzen da. Horien artean, hauek aipatzekoak dira: hondakinen sarrera-kontrolaren prozedura zehaztuak, garbiketa-prozesuak, berrerabil daitezkeen ontziak berrerabiltzea, ingurumena kudeatzeko sistemak, bai eta hondakinaren tratamenduaren trazabilitatea jasotzen duten kudeaketa-sistemak, nahasketa-erregelak/blending, segregazio- eta bateragarritasun-prozedura, tratamendu-sistemaren eraginkortasuna, honako hauek dituzten tratamendu fisiko-kimikoak: metal anfoteroen disolbaezintasuna. Konposatu ez-organikoen lixibiazioa, sistema itxiak, zamaketa lanetako operazioetan murrizte/ezabatze-sistemak.

Bigarrena.– Ekonor SA enpresak Adunako udalerrian sustatutako hondakinak kudeatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Ekonor SA enpresak Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Ingurumeneko sailburuordeak 1990eko uztailaren 24an emandako Ebazpenean ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu. Ebazpen horretan, «Adunan (Gipuzkoa) Hidronor SA enpresaren Hondakin Toxiko eta Arriskutsuen Tratamenduko Instalazioa» proiektuaren Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Adierazpena egiten da.

B) Erantzukizun zibileko aseguru bat egin beharko da milioi bat eta seiehun mila euroko (1.600.000) zenbatekoaz, ondorengoak estaliko dituena: hirugarren pertsonei edo horien ondasunei sortutako balizko kalteengatiko kalte-ordainak, eta baimen honek onartutako jardueraren ondorioz ingurumen aldatua konpondu eta berreskuratzeko kostuak.

Aseguru horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezio indizearen arabera (KPI) handituz.

C) Fidantza-prestazioa ehun eta laurogei mila (180.000) euroko zenbatekoaz, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 28. artikuluaren 2. atalean aurreikusitako terminoetan, eta artikulu horren 3. atalean aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da. Fidantza horren zenbatekoa hondakinak tratatu eta gordetzeko gehienezko ahalmenen arabera zehazten da.

Fidantza horren zenbatekoa urtero eguneratu ahal izango da Ingurumen Organoak horrela eskatuta, aurreko 12 hilabeteetako kontsumoko prezio indizearen arabera (KPI) handituz.

D) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Ekonor SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

E) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

E.1.– Hondakinak jaso, ikuskatu eta biltegiratzeko baldintzak eta kontrolak.

a) Ekonor SA enpresak atal honetan zerrendatutako hondakinak tratatu daitezen onartu ahal izango ditu, horiek onartu aurretik behar bezala justifikatzen bada horien baliozkotze materiala edo horien energia-aprobetxamendua ez den beste baliozkotze bat teknika, ekonomia edo ingurumenaren aldetik ez dela bideragarria.

b) Instalazioetan tratatzea aurreikusitako hondakin mota berri bakoitzerako operadoreak hondakinaren hasierako karakterizazioa egingo du, Adunako instalazioetan tratatzeko aukera dagoela egiaztatzeko.

c) Karakterizazioa egin ondoren, enpresak Ingurumen Sailburuordetza honen onespen espresa eskatu beharko du fabrikan hondakin berri bat tratatzeko, eta eskaera horretan egindako karakterizazioaren emaitzak sartu beharko ditu, eta baita hondakina onartzeko parametro mugatzaile edo baldintzatzaileen proposamen bat ere, eta hala badagokio, partida bakoitza hartu aurretik analizatu behar direnena.

d) Hondakin zehatz bat onartzeko aukera egiaztatu eta gero, Ekonor SA enpresak onespenaren egiaztagiria igorriko dio titularrari, onespenaren baldintzak ezartzen dituena.

e) Hondakinak onartu eta jasotzeko aukera egiaztatzeko xedearekin, Ekonor SA enpresak hondakin horiek onartzeko parametroen egiaztapena ahalbidetuko duten baliabide tekniko eta giza baliabideak eskuragarri izan beharko ditu une oro. Onarpena baldintzatzen duten parametro horiek ezartzea, kasu guztietan eta hondakin-partida bakoitzerako, metodo homologatuaren bidez egingo da; zentroaren langile-taldeko kide den laborategiko buru batek gainbegiratu beharko du eta espezializatutako goi-mailako tituluduna izan beharko da.

f) Ekonor SA enpresak dituen ekipoen zerrenda aurkeztu beharko du, horien kalibrazio-metodoen inguruko informazioa gehituz. Era berean, hondakinak onartzeko parametro bakoitzarentzat erabilitako analisi-metodoak eta neurketaren zehaztasuna aurkeztu beharko dira.

g) Baimen honetan adierazitakoen bestelakoak diren hondakinak ez dira onartuko. Nolanahi ere, kudeatu beharreko hondakinak zabaldu nahi izanez gero, aldez aurretik Ingurumen Sailburuordetzaren onespena beharrezkoa izango da, Ebazpen honen I atalean adierazitakoa betez.

E.1.1.– Hondakin onargarriak.

Aurretik aipatutako tratamendu-lerro desberdinetan, Ekonor SA enpresak lerro bakoitzerako jarraian identifikatutako EHZ kodeei dagozkien hondakinak kudeatu ahal izango ditu, betiere hondakin horiek atal honetan zehazten diren berariazko onarpen-eskakizunak eta organo honek baliozkotutako onarpen-agirian zehaztutako onarpen eta jasotze irizpideak betetzen badituzte.

a) Neutralizazio/Murrizte-oxidazio/Hauspeatze/Iragazpena.

EHZ kodea	Izena
06 01	Azidoen fabrikazioaren, formulazioaren, banaketaren eta erabileraren (FFDU) hondakinak
06 01 01	Azido sulfurikoa
06 01 02	Azido klorhidrikoa
06 01 03	Azido fluorhidrikoa
06 01 04	Azido fosforikoa eta azido fosforosoa
06 01 05	Azido nitrikoa eta azido nitrosoa
06 01 06	Beste azido batzuk
06 02	Baseen FFDU hondakinak
06 02 01	Kaltzio hidroxidoa
06 02 04	Potasio hidroxidoa eta sodio hidroxidoa
06 02 05	Beste base batzuk
06 05	Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak
06 05 02	Gai arriskutsuak dituzten efluenteen in situ tratamenduaren lohiak
10 01	Zentral elektriko eta bestelako errekuntza-plantetako hondakinak
10 01 09	Azido sulfurikoa
10 01 20	Gai arriskutsuak dituzten efluenteen in situ tratamenduaren lohiak
10 01 22	Galdaren garbiketan sortzen diren gai arriskutsudun lohi urtsuak
11 01	Gainazalaren tratamendu kimikoaren eta metalen eta bestelako materialen estalduraren hondakinak
11 01 05	Desugertze-azidoak
11 01 06	Bestelako kategoriatan zehaztu gabeko azidoak
11 01 07	Desugertze-baseak
11 01 08	Fosfatatze-lohiak
11 01 09	Gai arriskutsuak dituzten iragazketa-lohi eta -opilak
11 01 11	Gai arriskutsuak dituzten irakuzketa-likido urtsuak
11 0 113	Gai arriskutsuak dituzten koipegabetze-hondakinak
11 01 98	Gai arriskutsuak dituzten beste hondakin batzuk
11 02	Burdinarik gabeko prozesu hidrometalurgikoen hondakinak
11 02 05	Gai arriskutsuak dituzten kobrearen hidrometalurgia prozesuen hondakinak
11 02 07	Gai arriskutsuak dituzten beste hondakin batzuk
12 03	Ur eta lurrun bidezko koipegabetze-prozesuen hondakinak
12 03 01	Garbiketaren likido urtsuak
16 03	Espezifikaziorik ez duten produktuen eta erabiltzen ez diren produktuen loteak
16 03 03	Gai arriskutsuak dituzten hondakin ez-organikoak
16 06	Pilak eta metagailuak
16 06 06	Gaika jasotako pilen eta metagailuen elektrolitoa
16 07	Garraio- eta biltegiratze-zisternen garbiketaren eta upelen garbiketaren hondakinak
16 07 09	Beste gai arriskutsu batzuk dituzten hondakinak
16 09	Substantzia oxidatzaileak
16 09 01	Permanganatoak, adibidez, potasio permanganatoa
16 10	Tratamenduko kanpo-instalazioetara eramateko hondakin likido urtsuak
16 10 01	Gai arriskutsuak dituzten hondakin likido urtsuak
16 10 03	Gai arriskutsuak dituzten kontzentratu urtsuak
19 02	Hondakinen tratamendu fisiko-kimikoen hondakinak (kromo-kentzea, zianuro-kentzea eta neutralizazioa barne)
19 02 05	Gai arriskutsuak dituzten tratamendu fisiko-kimikoaren lohiak

EHZ kodea	Izena
19 02 11	Gai arriskutsuak dituzten beste hondakin batzuk
19 08	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakin-urak tratatzeko instalazioen hondakinak
19 08 13	Industriako hondakin-uren bestelako tratamenduetatik sortutako gai arriskutsudun lohiak
20 01	Gaika bildutako frakzioak
20 01 14	Azidoak
20 01 15	Alkaliak

1) Linea honetan hondakinak onartzeko, halaber, hondakin berri bakoitzerako egin beharreko tratagarritasun-entseguan emaitza positiboak izan beharko ditu.

2) Lortutako emaitzek, instalazioan tratatzeko aukera ezagutarazteaz gain, hondakina manipulatzerakoan hartu beharreko segurtasun-neurriak ezartzeko aukera eskainiko dute eta, onargarri ez den kasuetan, egokiagoa den lekua proposatzeko aukera.

b) Egonkortze-solidotzeko tratamendua.

EHZ kodea	Izena
01 03	Mineral metalikoen eraldatze fisiko eta kimikoaren hondakinak
010307	Mineral metalikoen eraldatze fisiko eta kimikoan sortutako gai arriskutsudun beste hondakin batzuk
01 04	Mineral ez-metalikoen eraldatze fisiko eta kimikoaren hondakinak
010407	Mineral ez-metalikoen eraldatze fisiko eta kimikoan sortutako gai arriskutsudun hondakinak
01 05	Zulaketen lohiak eta bestelako hondakinak
010506	Gai arriskutsuak dituzten zulaketen lohiak eta bestelako hondakinak
03 02	Zura babesteko tratamenduen hondakinak
030204	Zuraren kontserbatzaile ez-organikoak
04 02	Ehungintza-industriaren hondakinak
040216	Gai arriskutsuak dituzten koloregai eta pigmentuak
040219	Gai arriskutsuak dituzten efluenteen in situ tratamenduaren lohiak
05 01	Petrolio finketaren hondakinak
050109	Gai arriskutsuak dituzten efluenteen in situ tratamenduaren lohiak
06 03	Gatzen eta euren soluzioen eta oxido metalikoen FFDU hondakinak
060313	Metal astunak dituzten gatz solidoak eta disoluzioak
060315	Metal astunak dituzten oxido metalikoak
06 04	Metalak dituzten hondakinak, 06 03 kodean zehaztutakoen bestelakoak direnak
060403	Artsenikoa duten hondakinak
060404	Merkurioa duten hondakinak
060405	Beste metal astun batzuk dituzten hondakinak
06 05	Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak
060502	Gai arriskutsuak dituzten efluenteen in situ tratamenduaren lohiak
06 06	Sufrea duten produktu kimikoen, sufrearen prozesu kimikoen eta desulfurazio-prozesuen FFDU hondakinak
060602	Sulfuro arriskutsuak dituzten hondakinak
10 01	Zentral elektriko eta bestelako errekuntza-plantetako hondakinak (19. kapitulua izan ezik)
100104	Hidrokarburo-galdararen errauts hegakorrak eta hautsa
100114	Gai arriskutsuak dituzten etxeko errautsak, zepak eta baterako erraustetik sortutako galdararen hautsa
100116	Gai arriskutsuak dituzten baterako erraustetik sortutako errauts hegakorrak

EHZ kodea	Izena
100118	Gai arriskutsuak dituzten gas-arazketatik sortutako hondakinak
100120	Gai arriskutsuak dituzten efluenteen in situ tratamenduaren lohiak
100122	Galdarak garbitu ondorengo lohi urtsuak, gai arriskutsuak dituztenak
10 02	Burdin eta altzairuaren industriaren hondakinak
100207	Gai arriskutsuak dituzten gas-tratamenduko hondakin solidoak
100213	Gai arriskutsuak dituzten gasen tratamenduko iragazketa-lohi eta -opilak
10 03	Aluminioaren termometalurgia hondakinak
100319	Partikulak, gas-efluenteetatik eratorriak eta gai arriskutsuak dituztenak
100323	Gai arriskutsuak dituzten gas-tratamenduko hondakin solidoak
100325	Gai arriskutsuak dituzten gasen tratamenduko iragazketa-lohi eta -opilak
10 04	Berunaren termometalurgia hondakinak
100404	Gas-efluenteetatik eratorritako partikulak
100405	Bestelako partikulak eta hautsak
100406	Gasen tratamenduaren hondakin solidoak
100407	Gasen tratamenduaren iragazketa-lohiak eta –opilak
10 05	Zinkaren termometalurgia hondakinak
100503	Gas-efluenteetatik eratorritako partikulak
100505	Gasen tratamenduaren hondakin solidoak
100506	Gasen tratamenduaren iragazketa-lohiak eta –opilak
10 06	Kobrearen termometalurgia hondakinak
100603	Gas-efluenteetatik eratorritako partikulak
100606	Gasen tratamenduaren hondakin solidoak
100607	Gasen tratamenduaren iragazketa-lohiak eta –opilak
10 08	Bestelako burdinarik gabeko metalen termometalurgia hondakinak
100808	Lehen eta bigarren mailako produkzioaren gatzezko zepak
100815	Partikulak, gas-efluenteetatik eratorriak eta gai arriskutsuak dituztenak
100817	Gai arriskutsuak dituzten gasen tratamenduko iragazketa-lohi eta -opilak
10 09	Burdinazko piezen galdaketaren hondakinak
100909	Partikulak, gas-efluenteetatik eratorriak eta gai arriskutsuak dituztenak
100911	Gai arriskutsuak dituzten beste partikula batzuk
10 10	Burdinarik gabeko piezen galdaketaren hondakinak
101009	Partikulak, gas-efluenteetatik eratorriak eta gai arriskutsuak dituztenak
101011	Gai arriskutsuak dituzten beste partikula batzuk
101013	Gai arriskutsuak dituzten hondakin-lokiak
101109	Nahasketen prestaketaren hondakinak, egosteko prozesuaren aurretik eta gai arriskutsuak dituztenak
10 11	Beiraren eta bere eratorrien fabrikazioaren hondakinak
101111	Metal astunak (esaterako, hodi katodikoak) dituzten beiraren partikula txikien eta beira-hautsaren hondakinak
101113	Beiraren leuntze eta esmerilaketan sortutako lohiak, gai arriskutsuak dituztenak
101115	Gai arriskutsuak dituzten errekuntza-gasen tratamenduko hondakin solidoak
101117	Gai arriskutsuak dituzten gasen tratamenduko iragazketa-lohi eta -opilak
101119	Gai arriskutsuak dituzten efluenteen in situ tratamenduaren hondakin solidoak
10 12	Zeramika-produktuak, adreiluak, teilak eta eraikuntzarako materialak fabrikatzearen hondakinak
101209	Gai arriskutsuak dituzten gas-tratamenduko hondakin solidoak
101211	Metal astunak dituzten beiratzearen hondakinak
10 13	Zementua, karea eta igeltsua eta produktu eratorrien fabrikazioaren hondakinak
101312	Gai arriskutsuak dituzten gas-tratamenduko hondakin solidoak
10 14	Errausketa-labeetako hondakinak
101401	Merkurioa duten gas-arazketako hondakinak
11 01	Gainazalaren tratamendu kimikoaren eta metalen eta bestelako materialen (esaterako, galbanizazio-prozesuak, zinkaren bidezko estaldura-prozesuak, desugerketa-prozesuak, grabaketa, fosfatazioa, koipegabetze alkalinoa eta anodizazioa) estalduraren hondakinak
110108	Fosfatatze-lohiak
110109	Gai arriskutsuak dituzten iragazketa-lohi eta –opilak
110113	Gai arriskutsuak dituzten koipegabetze-hondakinak

EHZ kodea	Izena
110115	Mintz sistemetatik edo ioi-elkartruketik sortutako eluato eta lohiak, gai arriskutsuak dituztenak
110198	Gai arriskutsuak dituzten beste hondakin batzuk
11 02	Burdinarik gabeko prozesu hidrometalurgikoen hondakinak
110202	Zinkaren hidrometalurgiako lohiak (jarosita eta goethita barne)
110205	Gai arriskutsuak dituzten kobrearen hidrometalurgia-prozesuen hondakinak
110207	Gai arriskutsuak dituzten beste hondakin batzuk
11 03	Tenplaketa-prozesuen lohiak eta solidoak
110302	Bestelako hondakinak
11 05	Berotan galbanizatzeko prozesuen hondakinak
110503	Gasen tratamenduaren hondakin solidoak
110504	Urgarri erabiliak
12 01	Metalen eta plastikoen gainazaleko tratamendu fisiko eta mekanikoaren eta moldekatzearen hondakinak
120116	Gai arriskutsuak dituzten granailatze edo jariatze hondakinak
16 03	Espezifikaziorik ez duten produktuen eta erabiltzen ez diren produktuen loteak
160303	Gai arriskutsuak dituzten hondakin ez-organikoak
16 07	Garraio- eta biltegiratze-zisternen garbiketaren eta upelen garbiketaren hondakinak (05. eta 13. kapituluetakoak izan ezik)
160709	Beste gai arriskutsu batzuk dituzten hondakinak
16 11	Labe eta erregogorren estalduren hondakinak
161103	Metalurgia-prozesuetako substantzia arriskutsuak dituzten beste estaldurak eta erregogorrak
161105	Metalurgikoak ez diren prozesuetako beste estaldurak eta erregogorrak, gai arriskutsuak dituztenak
17 01	Hormigoi-nahasketa, adreiluak, teilak eta zeramikako materialak
170106	Gai arriskutsuak dituzten hormigoi, adreilu, teila eta zeramika-materialezko nahasketak edo frakzio bereiziak
17 05	Lurra (eremu kutsatuetan hondeatutakoa barne), harriak eta drainatze-lohiak
170503	Gai arriskutsuak dituzten lur eta harriak
170505	Gai arriskutsuak dituzten drainatze-lohiak
17 09	Eraikuntzaren eta eraispenaren bestelako hondakinak
170903	Eraikuntzaren eta eraispenaren bestelako hondakinak (gai arriskutsuak eta hondakin nahasiak dituztenak barne)
19 01	Hondakinen errausketa edo pirolisiaren hondakinak
190105	Gasen tratamenduaren iragazketa-opilak
190107	Gasen tratamenduaren hondakin solidoak
190111	Gai arriskutsuak dituzten labearen hondoaren eta zepen errautsak
190113	Gai arriskutsuak dituzten errauts hegakorrak
190115	Gai arriskutsuak dituzten galdara-hautsak
190117	Gai arriskutsuak dituzten pirolisiaren hondakinak
19 02	Hondakinen tratamendu fisiko-kimikoen hondakinak (kromo-kentzea, zianuro-kentzea eta neutralizazioa barne)
190204	Aurrez nahastutako hondakinak, gutxienez hondakin arriskutsu batek osatuak
190205	Gai arriskutsuak dituzten tratamendu fisiko-kimikoaren lohiak
190211	Gai arriskutsuak dituzten beste hondakin batzuk
19 04	Hondakin beiraztatuak eta beiraztapenaren hondakinak
190402	Gas-tratamenduaren errauts hegakorrak eta beste hondakin batzuk
190403	Fase solido ez beiraztatua
19 08	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakin-urak tratatzeko instalazioen hondakinak
190807	Ioi-trukatzaileen birsorkuntzaren soluzioak eta lohiak
190813	Industriako hondakin-uren bestelako tratamenduetatik sortutako gai arriskutsudun lohiak
19 11	Olioen birsorkuntzaren hondakinak
191101	Iragazpen-buztin erabiliak
191107	Gas-efluenteen arazketa-hondakinak
19 13	Lurzoruen eta lurrazpiko uren berreskurapenaren hondakinak
191301	Lurzoruen berreskurapenaren hondakin solidoak, gai arriskutsuak dituztenak
191303	Lurzoruen berreskurapenaren lohiak, gai arriskutsuak dituztenak
191305	Lurrazpiko uren berreskurapenaren lohiak, gai arriskutsuak dituztenak
20 01	Gaika bildutako frakzioak
200129	Gai arriskutsuak dituzten detergenteak

Aurreko taulan jasotako hondakinak egonkortze-solidotzeko tratamenduan onartzeko, onartutako hondakinak onartzeko beharrezko diren instalazio edota azpiegitura berriak abiatzeko proiektu zehaztua aurkeztuko da, honako hauei buruzko informazioa barne hartuz: deskarga-instalazioak, hondakinaren egokitzapena, drainatze-sarea, atxikipen-kubeta, zolaren egokitzapena, hautsezko produktuen biltegiratze-instalazioak, eta erreaktibo solidoak, bai eta gas-arazketaren sistema ere. Dokumentuek ingurumen organo honen ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko Gidan jasotakoarekin bat egingo dute.

a) Zerrendatutako hondakinen tratamendu-lerro honetan onartzeko parametro mugatzaile izango da horien edukian karbono organiko guztizkoa (KOG) % 5 baino gutxiagokoa izatea, beti ere, tratamendu ostean hondakinarentzat aurreikusitako amaiera onartutako zabortegian ezabatzea bada, erreaktiboak ez diren hondakin arriskutsu egonkorren onarpenerako hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz.

b) Halaber, onarpenerako CD-aren parametro mugatzailea egongo da, CD mailak ezin izango baitu % 10 baino gehiagokoa izan.

c) 10 06 06 EHZ kodedun hondakinentzat (Kobrearen termo metalurgiaren gas-tratamenduaren hondakin solidoak) onarpen-parametroak honako hauek izango dira:

– Aipatu hondakinaren Zn edukiak % 40 baino gutxiagokoa izango da.

– Aipatu hondakinaren CD edukia % 1 baino gehiagokoa izango da.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin Arriskutsuen Prebentzio eta Kudeaketarako Ingurumen Organoaren Artezpideekin bat eginez eta hondakinen kudeaketarako erkidegoko hierarkia betetzea sendotzeko, altzairutegi-hautsen korrontea baliozkotzea sustatuko da (10 02 07 EHZ) EAEko metalurgia-prozesuetan.

Ekonor SA enpresak kudeatuko du aipatu hondakina Adunako instalazioan baliozkotze-instalazioen larrialdi edo mantentze-etenak egiten direnean. Ekonor SA enpresak aurretiaz jakinaraziko dio egoera hori Ingurumen Organoari onar dezan.

e) Hondakinak aurreko parametroren bat beteko ez balu, dagokion kudeaketa egokienaren bidetik baliozkotuko da.

f) Linea honetan hondakinak onartzeko, halaber, hondakin berri bakoitzari egin beharreko tratagarritasun-entseguan emaitza positiboak izan beharko dira, laborategian tratatutako laginaren gainean, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiaren 2.3 atalean, 16. artikuluarekin eta 1999/31/EE Zuzentarauaren II. eranskinarekin bat etorriz, ezarritako parametro guztiak aztertuz.

g) Lortutako emaitzek, instalazioan tratatzeko aukera ezagutarazteaz gain, hondakina manipulatzerakoan hartu beharreko segurtasun-neurriak ezartzeko aukera eskainiko dute eta, onargarri ez den kasuetan, egokiagoa den lekua proposatzeko aukera.

E.1.2.– Hondakinen sarrera kontrolatzea.

a) Fabrikara neutralizatzera, zein tratamendurako egonkortze-prozesurako iristen diren hondakinen kontrol bat izan beharko da, hondakin horiek ebazpen honetako baldintzen arabera fabrikan onartuko direla bermatzeko. Kontrol hori Ingurumen Sailburuordetza honek onetsitako onarpen-agirian ezarritako egiaztapena izango da.

b) Hondakina jaso aurretik, onarpen-agiri horretan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da. Jaso behar diren hondakin arriskutsuak formalizatzeko, kudeatzaileari dagokion atala bete beharko da kontrol eta jarraipenerako agirian, edo honen baliokidea den agiri ofizialean. Tratagarritasuna hondakin-multzo bakoitzerako ziurtatuko da, gutxienez ondoko parametroak zehaztuko dituen kontrol- eta azterketa-prozesuaren bidez; jasotako hondakin desberdinen arabera, honako parametro hauek aztertuko dira:

– Desugertze-hondakin azidoetan eta beste azido batzuetan: pH-a, Dentsitatea, Olioak/Koipeak, VI Kromoa, Amoniakoa, Burdina, Kobrea, Nikela, Zinka, Kromoa (guztizkoa), Kadmioa eta Beruna.

– Desugertze-baseen eta beste base batzuen hondakinetan: pH-a, Dentsitatea, Olioak/Koipeak, VI Kromoa, Zianuroa.

– Fosfatatze- disoluzioen hondakinetan: pH-a, Dentsitatea, Olioak/Koipeak, VI Kromoa, Zianuroa, Amoniakoa.

– Iragazi gabeko lohien hondakinetan: pH-a, VI Kromoa, Zianuroa, Amoniakoa.

Iragaztea: Metalak, Fluoruroa, Fosfatoa, Nitratoa, Nitritoa, Kloruroa, Sulfatoa.

– Azalerak garbitzearen hondakin alkalinoetan: pH-a, VI Kromoa, Zianuroa, Amoniakoa, Olioak/Koipeak.

– Hidroxido metalikoen lohietan: pH-a, VI Kromoa, Zianuroa, Amoniakoa, Ekotoxikotasuna, Lixibiatze-saiakuntza.

Lixibiatua: Kobrea, Nikela, Zinka, Burdina, Kromoa, Beruna, Kadmioa.

c) Onarpenerako parametro mugatzaileak betetzen ez dituelako instalazioan jaso ezin den hondakin-partida bat izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Horrekin batera, jatorria, kopurua, enpresa garraiatzailea, bazterketaren arrazoia, baztertutako hondakinaren helmuga eta bestelako gorabeherei buruzko datuak eman beharko dira.

d) a) atalean adierazitako kontrolen osagarri gisa, fabrikan kudeatutako hondakin arriskutsu mota bakoitzaren karakterizazioa egingo da urtero (jatorri desberdin bakoitzeko karakterizazio bat). Karakterizazio hori kanpoko laborategi batek egin beharko du. Informazioa Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da urtero.

e) Onarpenerako parametro mugatzaileak betetzen ez dituelako instalazioan jaso ezin den hondakin-partida bat izanez gero, berehala jakinarazi beharko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Horrekin batera, jatorria, kopurua, enpresa garraiatzailea, bazterketaren arrazoia, baztertutako hondakinaren helmuga eta bestelako gorabeherei buruzko datuak eman beharko dira.

f) Ekonor SA enpresak onarpen-eskaerak, onarpen-agiriak, eta hondakin arriskutsuen kasuan, kontrol eta jarraipenerako agiriak gutxienez 5 urtetan erregistratu eta gorde beharko ditu.

g) Aurreko atalean aipatutako agiriak ingurumen organoari bidaliko zaizkio, ahal bada, erakundeentzako IKS-L03 Sistemaren bertsioa erabilita.

h) Ekonor SA enpresak egiaztatu egin beharko du hondakin arriskutsuak Bilboko udalerriko instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela. Horri lotutako edozein gorabehera detektatzen bada, berehala jakinaraziko zaio Ingurumen Sailburuordetzari, horrek egoki irizten diren neurriak har ditzan.

E.1.3.– Zamalanak.

a) Hondakin horien zamalanak egiteko ibilgailuen aparkalekuak beharrezko isurialdeak eta balizko isuriak jasotzeko sareak izango dituzte, horiek kutxeta itsurantz edo biltzeko putzurantz bideratzeko, bidean ibilgailuaren azpitik igaro gabe edo beste ibilgailu edo instalazio batzuetara hurbildu gabe.

b) Zamalanak hasi aurretik, ibilgailua lurrera konektatuko da, balizko elektrizitate estatikoa ezabatzeko. Horretarako beharrezko ekipoak izan beharko dira.

c) Hondakin horien zamalanak gai arriskutsuak manipulatzeko eskatutako segurtasun-baldintzak betez egingo dira.

d) Fabrikako hondakinen zamalanak eta manipulazioa, nola ekipoen estankotasunak, isurtze barreiatuak edo kontrolatu gabeak egotea saihestu, edo bestela, ahalik eta gehien murriztu beharko dituzte.

E.1.4.– Jasotako hondakinen biltegiratzea.

a) Tratatu beharreko hondakinak biltegiratzeko instalazioek lurzoru estankoak eta beharrezko isurialdeak izan behar dituzte, aurreikusitako karga guztiak jasateko eta horien isuri edo ihesak atxikitzeko gaitasunarekin. Hondakin onargarrien mota generiko bakoitzerako biltegiratze-gune bereiziak izango dira.

b) Bidoiak biltegiratzeko eremuak lurzoru estankoa, gerta daitezkeen jarioak kutxeta itsura bideratzeko aukera eskainiko duten beharrezko isurialdeak eta jasotze-sareak izango ditu.

c) Plantan onartutako hondakinak biltegiratzeko orduan, prezipitazio atmosferikoak sartzea eta haizeak hondakinak arrastatzea saihestu beharko da.

d) Hautsezko hondakinak eta soltean hartutakoa siloetan biltegiratuko dira tratatu arte.

e) Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Biltzeko sistema horiek bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

f) Biltegiratutako hondakin arriskutsuen ontzi guztiek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketan, gutxienez, dituen hondakinen identifikazio-kodea, ontziraketa-data eta hondakin horiek izan ditzaketen arriskuen izaera agertu beharko dira.

g) Halaber, biltegiratze-siloak dauden tokiko zolak lurzoru iragazgaitza eta balizko isuriak biltzeko eta neutralizazio-lubakietara garraiatzeko sistema izango ditu.

h) Hondakinen biltegiratze-kubetetan tratatu beharreko hondakinen aurretiazko egokitzapena egin ahal izango da baina ezingo da inolaz ere Egonkortze-solidotzeko prozesu osoa egin, hori horretarako instalazioetan egingo baita.

i) Putzupada beteen biltegiratzea deskarga-plataformaren ertzetik gutxienez metro bateko distantziara egingo da, hausturarik egongo balitz, edukia zolatutako eremutik irten ez dadin.

j) Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Adunako Udalean.

E.1.5.– Kudeatutako hondakinen datuen erregistroa.

a) Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 13.3 artikuluan ezarritakoari jarraiki, Ekonor SA enpresak esku hartzen duen eragiketen agiri-erregistro ulergarri bat egin beharko du. Erregistro horretan honako datu hauek agertu behar dira: kopuruak, izaera, tratamendurako diren hondakinen osaketa eta identifikazio-kodea; hondakinaren jatorria eta zein prozesutik datorren; enpresa sortzailea eta enpresa garraiatzailea; hondakin-partida bakoitzaren onarpen- eta jasotze-datak; jasotako hondakin arriskutsuen partida bakoitzerako kontrol eta jarraipenerako agiriaren erreferentzia-zenbakia; jasotako hondakinen fabrikan duten kokapena; biltegiratze-aldia eta datak; tratamendu-eragiketak, datak, kontrolerako parametroak eta prozesuari buruzko datuak. Halaber, baztertutako hondakin-partidei buruzko datuak gehituko dira erregistroan (jatorria, kopurua, enpresa garraiatzailea, bazterketaren arrazoiak eta helmuga alternatiboa).

b) Ebazpen honetako E.1.2 atalean aipatutako kontrolen emaitzak atal honetan araututako erregistroan jasoko dira, eta baita Ekonor SA enpresak egin ditzakeen kontrasteko horiek ere.

c) Ekonor SA enpresak egindako kudeaketa-jardueren txosten ulergarri bat, atal honetan adierazitako erregistroaren laburpen bat, aurkeztu beharko du hilero Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolaketaren Sailaren Ingurumen Sailburuordetzaren aurrean.

d) Halaber, urte bakoitzeko martxoaren 31 baino lehen, jardueren urteko memoria aurkeztu beharko da, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

E.2.– Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

E.2.1.– Ustiapenerako baldintza teknikoak.

E.1 atalean adierazitako hondakinak jasotzeko, ikuskatzeko eta biltegiratzeko baldintzez eta kontrolez gain, ondorengo tratamendu-lerroetarako berariazko baldintzak zehazten dira jarraian:

a) Neutralizazio/Hauspeatze/Iragazpen tratamendua.

1) Neutralizazio/Hauspeatze/Iragazpen tratamenduaren egokitasuna bermatzeko helburuarekin, prozesua optimizatuko duten operazio-baldintzak tratatu beharreko multzo homogeneo bakoitzari esleituko zaizkio. Horretarako, multzo horiek tratagarritasun-entseguak aurretiaz pasa beharko dituzte dagozkien gehigarri edo hondakin-nahasketaren zerrenda zehazteko.

2) Egonkortze-solidotze lineara garraiatu diren prozesutik lortutako hondakinentzat, karbono organiko guztizkoak (KOG) % 5 baino gutxiagokoa izango da, beti ere, tratamendu ostean hondakinarentzat aurreikusitako amaiera onartutako zabortegian ezabatzea bada, erreaktiboak ez diren hondakin arriskutsu egonkorren onarpenerako hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz. Hala izango ez balitz, izaera horretako hondakin arriskutsuetarako kudeatzaile baimenduari emango zaizkio.

3) Tratamenduaren ostean sortutako lohiak uneoro eta egonkortze-solidotzeko lineara elikatu arte, lurzoru estankoan eta estalpean biltegiratuko dira, prezipitazio atmosferikoen sarrera eta haizeak arrastatzea ekiditeko.

b) Egonkortze-solidotzeko tratamendua.

1) Egonkortze-solidotzeko tratamenduaren egokitasuna bermatzeko helburuarekin, prozesua optimizatuko duten operazio-baldintzak tratatu beharreko multzo homogeneo bakoitzari esleituko zaizkio. Horretarako, multzo horiek tratagarritasun-entseguak aurretiaz pasa beharko dituzte dagozkien hondakin/aglomeratzailea, erreaktiboen izaera eta dosifikazio-maila eta nahasketaren erreakzioaren parametro nagusiak zehazteko.

Hondakinak multzo homogeneotan tratatuko dira, horien arteko bateraezintasunak ekidinez eta hondakin organikoak eta ez-organikoak bereiziz.

2) Nahasgailutik irteterakoan, produktu egonkortuak gutxieneko beharrezko denboran biltegiratua egon behar du eta hondakin-familia bakoitzerako justifikatua izango da, erreaktiboak ez diren hondakin arriskutsu egonkorren onarpenerako hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz, zabortegi baimendura garraiatu eta uzteko prozesua egiteko bermea izan dezan.

Aipatu biltegiratzea silo itxi batean egingo da. Hondakina tratatu eta gutxienez 48 ordu pasatzen direnean, biltegiratutako multzo bakoitzeko hiru lagin adierazgarri hartuko dira. Horietako bati ondoren zerrendatzen diren instalazioko laborategietan aztertuko da, beste bat hozkailuan biltegiratuko da Ingurumen Sailburuordetzaren eskura eta hirugarrena ebazle gisa geratuko da.

3) Tratatutako hondakinean, modu zehatzean eta gutxienez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dituen Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiaren 2.3 atalean adierazitako parametro guztiak aztertuko dira.

4) Aztertutako parametroren batek hondakinean onartzeko balioak hiru aldiz baino gutxiagotan gainditzen badu, Ekonor SA enpresak gainditzea sortu ahal izan duten arrazoiak eta hori konpontzeko hartu beharreko neurriak aztertu eta justifikatuko ditu, aipatu analisi horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziz erabaki arrazoitua har dezan.

5) Zabortegian onartzeko balioak parametroetako batean hiru bider baino gehiago gainditzen dituzten solidotze-egonkortzeko prozesuan sortutako hondakinak, instalazioan biltegiratuta egongo dira prozesuan berriz jarri eta tratamendua egin arte, edo, hala ez balitz, izaera horretako hondakin arriskutsuen kudeatzaile baimenduari emango zaizkio.

6) Ekonor SA enpresak, prozesua egokia dela bermatuko duen segimendua egiteko eta etengabeko kontrolaren osagarri gisa, gutxienez, ondoko saiakuntza eta zehaztapen analitikoak egingo ditu:

● Ordurokoetatik (operazio-ordu bakoitzean lortutako laginak) lortutako eguneroko laginen gainean, EN-12457 2. atala lixibiatze-saiakuntza: lixibiatzearen pH-a.

● Eguneroko laginetatik lortutako asteroko laginen gainean, EN-12457 2. atala lixibiatze-saiakuntza: pH-a, kloruroak, sulfato fluoruroak, KOG eta ondoko metalen edukia:

○ Cd, Cr guztizkoa,Cu, Ni, Pb, Zn.

● Hileroko laginetatik (asteroko laginetatik lortutakoak) lortutako hiruhileko laginen gainean, EN-12457 2. atala lixibiatze-saiakuntza: pH-a, kloruroak, sulfato fluoruroak, KOG eta ondoko metalen edukia:

○ AS, Ba, Cd, Cr guztizkoa,Cu, Hg, Mo, Ni, Pb, Sb, Se, Zn.

Aurreko atalean adierazitako kontrolak gutxienez urte betean egingo dira. Urte hori amaitzean, lortutako emaitzen txosten zehaztua igorriko zaio Ingurumen Sailburuordetzari. Emaitza horien arabera, prozesuaren egokitzapenaren segimendu- eta kontrol-programa luza daitezke aurretiaz ezarritako maiztasunarekin edo, hala badagokio, maiztasuna zein kontrolatu beharreko parametro analitikoak alda daitezke.

7) Ekonor SA enpresaren eta enpresak bidalitako hondakinen kudeatzaile hartzaileen artean ezarritako onarpen-kontratu edo -gutunak indarrean daudela egiaztatu beharko zaio aldizka Ingurumen Sailburuordetzari. Kudeatzaile hartzaileak Espainiako Estatuan ez badaude, mugaz haraindiko lekualdatzeak arautzen dituen araudi komunitarioa bete beharko da.

E.2.2.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

E.2.2.1.– Baldintza orokorrak.

Ekonor SA enpresaren fabrika ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen (biltegiratzeko andelen eta garraiatzeko zisternen haizatzeak barne) ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala eraiki, ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

E.2.2.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Ekonor SA enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Diametroa barnekoa	Katalogazioa	
					Taldea	Epigrafea
1	20001048-01	Neutralizatze-xurgapena 1 (ezkerreko tximinia)	9 m	0,32 m	C	3.12
2-D	20001048-02d	Neutralizatze-xurgapena 2 (eskuineko tximinia)	9 m	0,32 m	Foku ez-sistematikoa	

Isurtze-fokuen UTM koordenatuak eman beharko dira.

Bestalde, karea eta zementua biltegiratzeko siloetan, horien haizatzearen isurtzeen arazketa-sistema gisa, mahuka-iragazkiak dituzte.

Halaber, isurketa barreiatuak egiten dira:

a) Instalazioaren prentsa-iragazki nagusiak irekitzerakoan sortutako isurketak.

Isurketa hori neutralizatze-nabearen barruan sortzen da, instalazioko iragazte-sistema nagusia (lohien deshidratazioa) dagoen eremuan.

Isurketa berehala desagertzen da, ez du 30 segundo baino gehiago irauten eta egun, ez da jardunaldi bakoitzeko 15 aldiz baino maiztasun handiagoz suertatzen.

b) Enpresaren ibilgailu-parkeak sortutako isurketa. Parkea dumper kamioi batek eta bi makina kargatzailek osatzen dute.

Isurketa hori ibilgailu-parkeak erabiltzen dituen instalazio-eremuetan ematen da: Instalazioaren atzealdea (hondakinak deskargatzeko eremua) eta instalazioaren iparraldean (hidroxido metalikoen lohiak eta lohi egonkortu ez-organikoak manipulatzeko eremua). Bi eremuek hormigoi armatuzko zola dute. Horri lotutako prozesuak N/P-I eta I/E-S.

Isurketa horrek etenkako erregimena du, ibilgailu-parkeko elementuren bat funtzionamenduan dagoen bitartean soilik sortzen da.

Stripping eta garbitzailea duen amoniakoa ezabatzeko sistemak aire-fluxua sistema itxian mantentzen du.

E.2.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokua	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1 eta 2	Guztizko partikulak	20 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NO_x, NO_2 gisa neurtuta)	500 mg/Nm^3
	Sufre oxidoak (SO_2)	130 mg/Nm^3
	Kloruroak azido klorhidrikoa (HCl) eta gas-kloroaren (Cl_2) arteko batuketaren ondorioz	30 mg/Nm^3
	Amoniakoa (NH_3)	20 mg/Nm^3
	Konposatu Organiko Hegazkorrak (KOH)	50 mg/Nm^3

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

E.2.2.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute E.2.2.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak 1976ko urriaren 18an emandako Agindua (Industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurre hartu eta hori zuzentzeari buruzkoa) bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurtze barreiatuak gutxitzeko, ondoko alde hauek hartuko dira kontutan:

a) Instalazioaren prentsa-iragazkiak irekitzerakoan sortutako isurketa: iragazpen-prozesuan xurgatze-sistema bat jarriko da barneko isurtze barreiatuak ezabatzeko.

b) Ibilgailu-parkeak sortutako isurketa: ibilgailu-parkeko elementuen erregai-biltegiak erabat ez kargatzeko erabakia hartu da, baldintza horietan isurtzen baita ke beltz (partikula) gehien. Mantentze-lanei dagokien ikuskapenak egingo dira ibilgailu-parkeak behar den bezala funtziona dezan.

Bestalde, hautsezko gaien eta erreaktibo solidoen biltegiratze-siloetako partikulen isurketak kontrolatuta mantentzeko helburuarekin, horien arazketa-sistemen mantentze-lan egokia egingo da.

E.2.3.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

E.2.3.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: hirugarren baten hondakinen tratamendu fisiko-kimikoa.

Jarduera-taldea: 16.

Mota-taldea-EJSN: 3.16.9916.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Industriako hondakin-urak eta euri-ur kutsatuak	Industriako hondakin-urak	Oria ibaia	Oria	I. kategoria	X: 577,16 Y: 4783,45

E.2.3.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: Industria-urak.

Orduko punta-emaria	2,5 l/s
Eguneko gehienezko bolumena	216 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	34.000 m^3

b) 2. isurketa: erabilera sanitarioko urak.

Urteko gehienezko bolumena 400 m^3/urtea.

E.2.3.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgurako isurien ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soil-soilik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

a) 1. isurketa: industria eta euri-ur kutsatuak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
Solido esekiak	30 mg/l
Olioak eta koipeak	20 mg/l
N- amonioa	15 mg/l
N-Nitritoak	2 mg/l
Detergenteak	2 mg/l
Fenolak	0,5 mg/l
Burdina	2 mg/l
N-Nitratoak	10 mg/l
Nikela	1 mg/l
Zinka	2 mg/l
Kobrea	0,2 mg/l
Vi Kromoa	0,1 mg/l
Kromoa guztizkoa	2 mg/l
KOH	160 mg/l
Zianuroa guztizkoa	0,5 mg/l
Zianuro askea	0,1 mg/l
Kloruroa	50.000 mg/l
Sulfatoa	2.000 mg/l
Fluoruroa	6 mg/l

Tenperatura: 3 ºC-ko igoera beheko ibilguan.

Metalen muga «guztizko» edukirako aplikatuko dira.

b) 2. isurketa: osasun-erabilerako urak.

«Gipuzkoako Ur Kontsortzioko hodi biltzailera doazen isurketei buruzko araudian» agertzen diren mugak eta baldintzak bete beharko ditu isurketak, erakunde horrek aintzat har ditzakeen zehaztapen, aldaketa eta salbuespenekin.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek baldintza honetan berariaz aipatutako substantzien isurketak bakarrik barne hartzen ditu eta, batez ere, Uraren abuztuaren 2ko 29/1985 Legeko Atariko, I, IV, V, VI eta VIII. Tituluak garatzen dituen Jabari Publikoko Urguneen Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen duen maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak aipatzen dituen substantzia arriskutsuak.

E.2.3.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek honako jarduera hauek barne hartuko dituzte funtsean:

– Amonioz oso kargatuta dauden hondakinak tratamendutik ezabatzea, jasotzen direnak homogeneizatu eta tratamendura dosifikatu.

– Segurtasunerako iragazpen-sistema ezartzea, prozesuko prentsa-iragazkietako jarioetatik datorren isurketa jasotzen duen biltegi erregulatzaile - dekantagailutik noizean behin ihes egin dezakete pikorrak geldiarazteko.

– Isurketa etengabeko erregimenean egitea 24 orduz egunean, erregulazio-elementu gisa dagoen dekantazio-elementua erabiliz.

– Kobrezko bainuen homogeneizazioa eta prozesurako dosifikazioa, metal hori efluentean meta ez dadin.

– Etengabe pH-a, eroankortasuna, emaria eta tenperatura neurtzea.

– Amoniakoa ezabatzeko instalazioa, dorrean gasgabetzea duen «stripping» prozesuaren bidez, pH alkalinoari (11,5) aire epela injektatuz. Ondoren, askatutako amoniakoa jasoko da azido klorhidrikoko disoluzio batekin.

– Efluentearen pH-a doitzea, isuri aurretik azidoa gehituz; sortutako amonio-kloruroaren disoluzioa baimendutako kudeatzaileari bidaliko zaio.

Biltegiratze-siloen, sarrera-malden eta abarren eremuetako kutsadura arrasta dezaketen euri-urak, ubide jakin batzuetan jasoko dira prozesu-lineara bideratzeko.

Erabilera higienikoko urak kolektore orokorrera bideratuko dira.

Euri-ur «garbiak» independenteki jasoko dira ibilgu publikora isurtzeko.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Ekonor SA enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Isurketen kontrol-kutxetak jarriko dira, eta kutxeta horiek lagin esanguratsuak lortzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

Industria-efluentearen kontrolerako ekipamendua izatea beharrezkoa izango da, pH-a, emaria, eroankortasuna eta tenperatura etengabe neurtuz. Administrazioaren eskura egon beharko duten uneko neurketen adierazleak eta datu historikoak biltegiratzeko eta inprimatzeko sistema egongo dira.

E.2.3.5.– Isurien kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honako hau da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurketen Kontrol Kanona = B × P_u = 34.000 × 0,019 = 646.

$P_u = P_o \times Km$.

$Km = K_2 \times K_3 \times K_4$.

Honela ulertuta:

B = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_b = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

Km = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

1. isurketa: Industria-erabilerako urak:

B: Bolumena	B: 34.000 m^3/ urteko
Po: Hondakin-ura: Industriala	Po: 0,03005 €/m^3
K2: Gai arriskutsuak dituena	K2: 1,28
K3: Tratamendu egokia	K3: 0,5
K4: Kategoria-eremua: III	K4: 1,25

Km = 1,28 x 0,5 x 1,25= 0,8000.

Pu = 0,03005 x 0,8000 = 0,0240400 euro/ m^3.

Isurien kontrol-kanona = 34.000 x 0,00240400 = 817,36 euro/urte.

Zenbateko horrek 2007/01/01etik izango ditu eraginak eta ez da aldatuko isurtzeko baimena edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, titularrari urte horri dagokion likidazioa bidaliko zaio.

E.2.4.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliozkotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira balioztatzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin horiek tratatzeko instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Adunako Udalean.

E.2.4.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

● 1. prozesua: «Zamaketa-lanak eta Biltegiratzea».

○ 1. hondakina: «Gai arriskutsuak izan dituzten ontziak edo ontzien hondakinak».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q05/R13/S36/C23-24/H05/A932/B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 750 kg.

Kanpo-kudeaketa. Hondakin-mota hori berreskuratu eta berrerabili behar da. Ondoren ontzi berriak fabrikatzeko berreskuratu ahal izango da, hala, hondakin-mota hori jasotzen duen baimendutako hondakin arriskutsuen kudeatzailea aukeratu ostean, hondakinak onartzeko eskaera egiten da. Hondakin hori onartzen duela dioen dokumentuzko konpromisoa lortzen denean ematen da, ontzien edo ontzien hondakinen garraiorako ezarritako baldintza guztiak beteko dituen garraiolari bat erabiliz (kasu honetan, hondakin arriskutsuen garraiorako administrazio-baimena).

○ 2. hondakina: «Onarpen/ikuskapena laginen hondakinak».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q3/D15/L-S40/C23/24/H06-08/A932/B0019.

– EHZ: 160506.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Kanpo-kudeaketa. Hondakin-mota hau berreskuratu eta berrerabil daiteke, ondoren amoniakoa edo amoniakodun konposatuak egiteko, hala, hondakin-mota hori jasotzen duen baimendutako hondakin arriskutsuen kudeatzailea aukeratu ostean, hondakinak onartzeko eskaera egiten da. Hondakin hori onartzen duela dioen dokumentuzko konpromisoa lortzen denean ematen da, ontzien edo ontzien hondakinen garraiorako ezarritako baldintza guztiak beteko dituen garraiolari bat erabiliz (kasu honetan, hondakin arriskutsuen garraiorako administrazio-baimena).

● 2. prozesua: «Mantentze-lanak eta Iragazpena».

○ 1. hondakina: «Amonio sulfatozko disoluzioa».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q09/D13/L21/C23/H04/A932/B0019.

– EHZ: 190211.

– Urtean sortutako kantitatea: 3.000 l.

Instalazioko neutralizatze-iragazpen linearik datozen isurketaren industria-uren arazketa-prozesuaren ondorioz sortzen da, hondakinen tratamendu fisiko-kimikoaren jardueraren barruan.

Kanpo-kudeaketa. Hondakin-mota hau berreskuratu eta berrerabil daiteke, ondoren amoniakoa edo amoniakodun konposatuak egiteko, hala, hondakin-mota hori jasotzen duen baimendutako hondakin arriskutsuen kudeatzailea aukeratu ostean, hondakinak onartzeko eskaera egiten da. Hondakin hori onartzen duela dioen dokumentuzko konpromisoa lortzen denean ematen da, ontzien edo ontzien hondakinen garraiorako ezarritako baldintza guztiak beteko dituen garraiolari bat erabiliz (kasu honetan, hondakin arriskutsuen garraiorako administrazio-baimena).

○ 2. hondakina: «Olio hidraulikoa».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q07/R13/L08/C51/H05-06/A932/B0019.

– EHZ: 130110.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 l.

Hondakin arriskutsuen tratamendua osatzen duten hainbat prozesuren zati diren ekipo edota azpiegituren mantentze-lanetan sortzen da.

Kanpo-kudeaketa. Hondakin-mota hau berreskuratu eta ondoren balioztatu daiteke, hala, hondakin-mota hori jasotzen duen baimendutako hondakin arriskutsuen kudeatzailea aukeratu ostean, hondakinak onartzeko eskaera egiten da. Hondakin hori onartzen duela dioen dokumentuzko konpromisoa lortzen denean ematen da, ontzien edo ontzien hondakinen garraiorako ezarritako baldintza guztiak beteko dituen garraiolari bat erabiliz (kasu honetan, hondakin arriskutsuen garraiorako administrazio-baimena).

○ 3. hondakina: «Trapu kutsatuak».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q05/R13/S34/C41-51/H05/A932/B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 25 kg.

Hondakin arriskutsuen tratamendu fisiko-kimikoa osatzen duten hainbat prozesuren zati diren ekipo edota azpiegituren mantentze-lanetan sortzen da.

Kanpo-kudeaketa. Hondakin-mota hori jasotzen duen baimendutako hondakin arriskutsuen kudeatzailea aukeratu ostean, hondakinak onartzeko eskaera egiten da. Hondakin hori onartzen duela dioen dokumentuzko konpromisoa lortzen denean ematen da, ontzien edo ontzien hondakinen garraiorako ezarritako baldintza guztiak beteko dituen garraiolari bat erabiliz (kasu honetan, hondakin arriskutsuen garraiorako administrazio-baimena).

● 3. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Toner agortuak».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q06/D15/S12/C41/H05/A932/B0019.

– EHZ: 080317.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Administrazio-lanetan sortzen da eta kanpo-kudeatzaile baimenduaren bidez kudeatzen da.

○ 2. hondakina: «Fluoreszenteak».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q6/R13/S40/C16/H6/14/A932/B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Administrazio-lanetan sortzen da eta kanpo-kudeatzaile baimenduaren bidez kudeatzen da.

○ 3. hondakina: «Medikamentu iraungiak».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/3/3.

– EHZ: 200132.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Instalazioetan dauden botikinetan sortzen da eta kanpo-kudeatzaile baimendu baten bidez kudeatzen da.

○ 4. hondakina: «Pila alkalinoak eta ibilgailuen bateriak».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/3/4.

– Hondakinaren kodea: Q6/R13/S37/C22/H14/A932/B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Energia-metagailu horietakoak behar dituzten ekipo edo tresnak erabiltzen dituzten eremuetan sortzen da eta kanpo-kudeatzaile baimenduaren bidez kudeatzen da.

○ 5. hondakina: «Ekipamendu elektrikoak eta elektronikoak».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/3/4.

– Hondakinaren kodea: Q6/R13/S40/C6/18/H14/A932/B0019.

– EHZ: 200135.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Ekipamendu horiek erabiltzen dituzten instalazioko eremu desberdinetan sortzen dira eta kanpo-kudeatzaile baimenduaren bidez kudeatzen dira.

● 4. prozesua: «Hondakinen auto kudeaketa uren arazketaren bidez».

○ 1. hondakina: «Kutsatutako urak».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/4/1.

– Hondakinaren kodea: EHZ: 160709.

– Urtean sortutako kantitatea: 34.000 m^3.

Hondakin horrek bi jatorri ditu:

– Instalazioetan tratatutako hondakin arriskutsuek dituzten substantzia arriskutsuekin harreman zuzena izateagatik sortutako euri-uren kutsadura.

– Hondakin arriskutsuak dituzten edo izan dituzten biltegi, ontzi, zoladura edo azpiegituak garbitzeagatik sortutako uren kutsadura.

Barne-kudeaketa. Hondakinak, instalazioetan kudeatutako hondakin arriskutsuek jasotzen duten tratamendu fisiko-kimiko bera izaten du; lehenik, neutralizazio-hauspeatze-iragazpen prozesu bat ezartzen zaio eta ondoren bi prozesu paralelo egiten zaizkio: lehen prozesuan sortutako iragazpen-uren arazketa eta hidroxido metalikoen lohien egonkortze-solidotzea.

○ 2. hondakina: «Diluitutako azido klorhidrikozko disoluzioa».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/4/2.

– Hondakinaren kodea: Q07/D09/L21/C23/H08/A932/B0019.

– EHZ: 190211.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.000 l.

Isurketarako industria-uren arazketa-prozesuan amoniakoa ezabatzeko etapan egiten diren mantentze-lanen ondorioz sortzen da.

Barne-kudeaketa. Instalazioetan kudeatutako hondakin arriskutsuen tratamendu fisiko-kimiko bera izaten du.

○ 3. hondakina: «Hidroxido metalikoen lohiak».

– Identifikazioa: B20749057/2000018055/4/3.

– Hondakinaren kodea: Q09/D09/S27/C24/H05/A932/B0019.

– EHZ: 190205.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 kg.

Hondakin horiek sortzen dira finketa-iragazketarako etapan edota isurketako ur industrialak arazteko prozesuaren segurtasunean.

Barruan kudeatzen dira, prozesuan ezarritako estabilizazio-solidifikazio tratamendua emanda.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahastuko balira, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Ekonor SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Ekonor SA enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Ekonor SA enpresak.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

k) Ekonor SA enpresak PKB daukaten gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu horiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

l) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Ekonor SA enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

n) Dosifikatze eta tratamenduko eragiketak bilduko dituen erregistro-liburu bat izan beharko du honako hondakin arriskutsu hauek ezartzeko: ur kutsatuak, diluitutako azido klorhidrikozko disoluzioa eta hidroxido metalikoak dituzten lohiak. Bertan gutxienez honako datu hauek jasoko dira:

a) Kudeatutako hondakinen kopuruak, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

b) Hondakinen aldizkakotasuna eta dosifikazio-maila.

c) Tratamendu-eragiketak eta kontrolerako parametroak.

d) Tratamenduaren ondorioz sortutako hondakinen kopurua, izaera, konposizioa eta identifikazio-kodea.

e) Horien kudeaketa, helmuga identifikatzeko datak eta datuak.

f) Hilero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

o) Aurreko e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), p) eta q) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

p) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Ekonor SA enpresak 108/1991 Errege Dekretuan (3. artikulua), amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzekoan, ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

E.2.4.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Hondakin ez-organikoak egonkortua	190307	Solidotze-Egonkortzea	12.500 t

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Papera eta kartoia	200101	Zerbitzu orokorrak	4.500 kg
Plastikoak	200139	Zerbitzu orokorrak	
Metalak	200140	Zerbitzu orokorrak	
200138 kodean zehaztutakoaren bestelakoa den zura	20 01 38	Zerbitzu orokorrak	

Ondoko hondakinen kantitateak adierazi beharko dira: «Papera eta kartoia», «Plastiko Metalak» eta «200138 kodean zehaztutakoaren bestelakoa den zura».

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua balioztatzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Ekonor SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, bai eta sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua ere. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aipatutako c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

E.2.5.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuak xedatutako betebeharrak betetze aldera lurzoruaren egoerari buruz aurretiaz aurkeztutako txostenaren arabera, eta txosten horrek jasotako gomendioak jarraituz, Ekonor SA enpresak une oro materialak biltegiratzeko gunea eta urak husteko sistema modu egokian mantentzen direla ziurtatuko duten jardunbide egokiak ezartzea proposatu beharko du. Neurri horiek prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jasoko dira, eta baita ikuskatze eta kontrol programa eguneratua ere.

Ebazpen honek aztergai duen jarduera lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen II. eranskineko «Hondakin ez-metalikoen birziklapena» 37.2 epigrafean sartuta dagoenez, eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean

ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Ekonor SA enpresak honako jarduera hauek egin beharko ditu:

a) Deskarga-plataforma zolatu eta iragazgaiztea eta horren mantentze-lan egokia bermatzea, kamioiak eta makinak pasatzen direla eta, pitzadurak sortu eta kutsagarriak infiltra ez daitezen.

b) Putzupada beteak deskarga-plataformaren ertzean biltegiratzea ekidin, hautsiko balira, edukia eremu zolatura irten ez dadin.

c) Txatarra eta beste material batzuk babesik gabeko zoruan biltegiratzea ekidin. Adibidez, putzupada hutsak biltegiratzeko erabiltzen den obra zibileko kubeta erabil daiteke horretarako.

E.2.6.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

F) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

F.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Ekonor SA enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	20001048-01	Neutralizazio Xurgapena 1	Guztizko partikulak, nitrogeno oxidoak (NO_2 gisa neurtuak), sufre oxidoak (SO_x), karbono monoxidoa, amoniakoa (NH_3), karbono organiko guztizkoa, azido klorhidrikoa (HCl), gas-kloroa (Cl_2) eta hidrogeno zianuroa (HCN)	Hiru urtero, BKEk egina
2D	20001048-02d	Neutralizazio Xurgapena 2	Guztizko partikulak, nitrogeno oxidoak (NO_2 gisa neurtuak), sufre oxidoak (SO_x), karbono monoxidoa, amoniakoa (NH_3), karbono organiko guztizkoa, azido klorhidrikoa (HCl), gas-kloroa (Cl_2) eta hidrogeno zianuroa (HCN)	Hasierako neurketa

Goiko atalean adierazitako neurketa guztiak Baimendutako Kontrol Erakunde Baimendu (BKE) batek egin behar ditu (gutxienez ordubeteko hiru neurketa, zortzi ordutan barrena neurtutakoak) eta aldizkako neurketa horiei dagozkien txostenak, Ingurumen Sailburuordetzaren «BKEen gutxieneko txostenean» ezarritakoari egokitu behar zaizkio. Edonola ere, isurien kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

Prentsa-iragazkietan sortutako isurtze barreiatuen xurgatu eta kanpora garraiatzeko proiektua aurkeztuko da. Bertan, kontrolatu beharreko kutsagarrien proposamena jasoko da. Bestalde, D.6 ataleko zainketa-programan, hautsezko materialaren siloen arazketa-sistemen mantentze-lanen inguruko programa txertatuko da.

b) Lortutako emaitzen erregistroa.

Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Aipatu erregistroan Baimendutako Kontrol Erakundeak (BKE) egindako neurketen emaitzak jasoko dira, eta eginez gero, sustatzaileak egindako neurketak (autokontrola), mantentze-lanak (arazketa-sistemenak barne, mahuken aldaketak, adibidez), garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako intzidentziak, eta abar. Dokumentazio hori eguneratuta egongo da, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

F.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Hondakin-urentzat analisi hauek egingo dira:

Industriako hondakin-urak eta euri-ur kutsatuen isurketa.

Autokontrolak.

Etengabea: kontrola ondoko parametroen inguruan egingo da: Emaria, Tenperatura, pH-a eta eroankortasuna.

Egunerokoa: pH-a, eroankortasuna, solido esekiak, olio eta koipeak, burdina, gogortasuna.

Asterokoa: pH-a, Kloruroak, Sulfatoak, CN guztizkoa, Nitritoak, Nitratoak, Amonioa, Kobrea, Kromo hexabalentea.

Hilero: pH-a, Solido esekiak, Kloruroak, Sulfatoak, Zianuroak, Amonioa, Fluoruroak, Fosforoa guztizkoa, Manganesoa, Kromo hexabalentea, Kromoa guztizkoa, Kobrea, Kadmioa, Zinka, Burdina, Olio eta Koipeak, Nikela, Beruna, Nitratoak, Fenolak, Detergenteak.

Hileroko kontrola isurketan zein Oria ibaian egingo da bi puntu adierazgarritan, isurketa egin aurretik eta ondoren.

Parametroak analizatzeko «Estándar Methods For The Examination Of Water And Wastewater-en» (APHA, AWWA, WPCF, azken edizioan) ageri diren normalizatutako metodoetakoren bat erabiliko da, edota «ASTM Water and Environmental technology»-ren azken edizioko 11. sekzioan ageri den metodoren bat. Parametroaren ohiko kontzentrazioaren arabera metodo egokiena hautatuko da. Egun erabiltzen diren metodoen bestelakoak diren analisi-metodoak erabil daitezke, kutsatzaileen kontzentrazioa modu egokiagoan definitzeko. Eskatutako analisien parametro bakoitzean erabilitako analisi-metodoa adierazi beharko da.

Kanpo-kontrolak.

Sei hilerokoa: berariaz onartutako parametro guztiak aztertuko dira.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea zein ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek (Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 255. artikulua) egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

Emaitza horiek, halaber, Uraren Euskal Agentziara, Gipuzkoako ordezkaritzara, igorriko dira.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

d) Kontrol bakoitza baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, E.2.3.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

F.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea		Unitatea
Ekoizpena	In situ ezabatutako hondakin arriskutsuak: Ezabatutako hondakinen guztizkoa	t
	Hondakin neutralizatuak	t
	Zabortegian emandako hondakin egonkortuak	t
	Hirugarren baten hondakinak, tratamendu fisiko-kimikoaren bidez ezabatuak	t
Materialen kontsumoa	Kare-kontsumoa	t/t
	Azidoen neutralizaziorako erabiltzen diren hondakin basikoen kontsumoa (hondakinezko kare-esneak, soda disoluzioak, etab.)	t/t
	Zementu-kontsumoa	t/t
Energiaren kontsumoa	Guztizko Energia Kontsumoa/Ezabatutako Hondakinak	kWh /t hondakin ezabatuak
	Elektrizitate-kontsumoa/energiaren guztizko kontsumoa	% (kWh/kWh)
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3
	Ur-kontsumoa/Hondakin ezabatuak	m3/t hondakin ezabatuak
Uretara egindako isurketak	Industria-isurketak/Helmuga	m^3
	Euri-uren isurketa/Helmuga	m^3
	N-amonioa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketarako	mg/l
	N-Nitritoak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketarako	mg/l
	Detergenteak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketarako	mg/l
	Fenolak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketarako	mg/l
	N-Nitratoak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketarako	mg/l
	KOG (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketarako	mg/l
	Kloruroa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketarako	mg/l
	Sulfatoa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketarako	mg/l
	Fluoruro (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. isurketarako	mg/l

Adierazlea		Unitatea
Atmosferara egindako isurtzeak (instalazioan; garraio-ontzidiaren isurtzeak salbu)	H2SO4 isuriak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. fokurako	mg/Nm^3
	H2SO4 guztizko isurtzeak	kg/t
	HCL isuriak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. fokurako	mg/Nm^3
	HCl isurketak guztira	kg/t
	HNO3 isuriak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. fokurako	mg/N m^3
	HNO3 guztizko isurtzeak	kg/t
	NH3 isuriak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. fokurako	mg/N m^3
	NH3 guztizko isurtzeak	kg/t
	KOG gisa isuritako KOHak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. fokurako	mg/N m^3
	KOH isurketen guztizkoak	kg/t
	SO2 isuriak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. fokurako	mg/N m^3
	SO2–aren guztizko isurtzeak	kg/t
	CO isuriak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. fokurako	mg/N m^3
	CO isurketak guztira	kg/t
	NOx isuriak (NO2 gisa neurtua) (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. fokurako	mg/N m^3
	NOx guztizko isuriak (NO2 gisa neurtua)	kg/t
	CL isuriak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. fokurako	mg/N m^3
	CL guztizko isurtzeak	kg/t
	SH2 isuriak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua) / 1. fokurako	mg/N m^3
	SH2 guztizko isurtzeak	kg/t
Hondakin arriskutsuen ekoizpena (izanez gero, egindako tratamenduaren emaitza)	Enpresak sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	t
	Araztegiko lohiak	t/t
	Bezeroengandik jasotako ontzi kudeatuak	t/t
Hondakin ez-arriskutsuen ekoizpena (izanez gero, egindako tratamenduaren emaitza)	Enpresak sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t/t
Lurzorua	Kalitatea ikertu zaion lurzoru okupatuaren azalera (ikerketa motaren arabera xehatua: aurretiazkoa, esploratzailea, xehatua)	ha
Zaratak	Lursailaren mugan batez besteko maila akustikoak (egunez eta gauez) Lursailaren mugan batez besteko gehieneko maila akustikoak (egunez eta gauez)	dB(A)
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isuriekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urte
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/ez Zein/ urtea

F.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Halaber, neurketa bat egingo da honako hauetako elementuren bat aldatzen bada: prozesua, ekipamendua, aplika daitekeen araudia edo jarduera modu esanguratsuan areagotzen bada.

Osagarri gisa eta instalazioen barruan zarata-mailaren aldizkako neurketak urtero egiten direnez (lan-arriskuen prebentziorako planean aurreikusitako neurketak), aurreko neurketan lortutako balioak % 10 baino gehiagoan gainditzen dituzten balioak lortzen direnean, azterketa berria egingo da.

F.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, eta ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostena ere bidaliko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

F.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

G) Ezohiko egoeretan aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

G.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei zein fabrika gelditzeko eta abiatzeko aldiei dagokienez, botako dituen kutsagarriak eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

G.2.– Jarduera uztea.

Jarduera, honako hauen aplikazio esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea («Hondakin ez-metalikoak birziklatzea» 37.2 epigrafea), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Ekonor SA enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

G.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Oinarrizko Proiektuan jasotako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazkaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa-mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Erabilitako erregai adierazgarrienak, gehigarriak eta efluenteen arazketako hondakinak, besteak beste, eta orokorrean, fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak gordetzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira. Halaber, airera isurtzeak ekiditeko xurgapen-sistema zentralizatuaren biltegiratze eta zamaketa-lanetarako eremua egongo dela bermatuko da.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamenduko instalaziora eramango.

k) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

l) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

m) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

n) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

o) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

p) Urtean behin instalazio horien garbiketaren eta mantentze-lanen fakturaren kopia bat bidaliko da.

q) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu horretan, honako baldintza hauek azpimarratu behar dira:

– Araztegia ustiatzeko enpresa espezializatu batek egindako protokolo edo eskuliburu bat izango da nahitaez, eta ekipo elektromekaniko, zunda, mintz, dosifikatu eta kontrolatzeko tresna eta abarren azterketa eta mantentze-lanak finkatuko dira bertan.

– Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

– Enpresa espezializatu batek egindako araztegiaren mantentze-lanen protokolo edo eskuliburu bat eduki behar da derrigorrez, eta bertan, hauek finkatuko dira: ekipo elektromekanikoen mantentze-lanak, arbastuen garbiketak, gehiegizko solido, lohi etab.en purgak, erreaktore biologikoko lohien kontzentrazioaren aldizkako jarraipena barne, horiek behar bezala purgatu eta erretiratzeko.

r) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ez-ohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, isurpenaren muga-balioak gainditzea edo ustekabeko isuri bat egitea), sustatzaileak gorabehera edo ez-ohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

s) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

– Gertakari-mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.

– Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.

– Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

t) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

H) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

I) Urtean behin Ekonor SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko

datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta/edo prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri), Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

J) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

K) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Testu Bateginari buruzko urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3.2 artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, bere II. eranskineko 9.k) epigrafearekin bat.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako Bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B (erantzukizun zibileko asegurua); C (fidantza); E.1.1 (egonkortu beharreko hondakinak egokitzeko proiektu zehaztua); E.1.2 (Hondakinak eta baliabide teknikoak zein giza baliabideak onartzeko agiriak, egiaztatu daitezen), E.1.3 eta E.1.4 (Instalazioen ezaugarriak); E.1.5 (Kudeatutako hondakinen datuen erregistroa); E.2.2.2 (Isurtze-fokuen UTM koordenatuak); E.2.4.1.e) (hondakin arriskutsuen onarpen-agiria); E.2.4.1.m) (Hondakin arriskutsuen erregistro-eredua); E.2.4.2 (sortutako ondoko hondakinen urteko kopuruak: «Papera eta kartoia», «Plastiko Metalak» eta «200138 kodean zehaztutakoaren bestelakoa den zura»); E.2.4.2 c) (hondakin arriskutsuen onarpen-agiria); E.2.4.2.e) (hondakin ez-arriskutsuen erregistro-eredua); F.1.a) (atmosfera-neurketak); F.1.1 (Isuri atmosferikoak eta fokuaren azterketak erregistratzeko eredua); F.6 (Ingurumena zaintzeko programako agiri bategina); G.1 (Mantentze-lanetako isurtze eta hondakinen balioespena); G.3.a) (prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); G.3.c) (ustiapenari buruzko eskuliburua); G.3.h) (larrialdietarako materialak) eta G.3.s) (suteen aurkako babesari buruzko araudia betetzen dela ziurtatzen duten agiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Ekonor SA enpresak Ebazpen honen xede den hondakinak kudeatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Ekonor SA enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia honako hauei jakinaraztea: Ekonor SA, Adunako Udala, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeak, eta gainerako interesdunak.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari; beraz, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluetan eta ondorengoetan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 30a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.